bidegileak



Fermin Irigarai *Larreko* (1869-1949)

Egilea:

JOSE ANGEL IRIGARAI

Sendakintzaz arranguratua



Fermin Irigarai *Larreko* (1869-1949)

Sorrera eta ikaste-aroa

Fermin Irigarai Goizueta Nafarroako Pirinioan kokaturik dagoen Auritz herrian sortu zen 1869ko urtarrilaren 25ean, *Martinzurginenea* etxean. Aita, Ramon Irigarai Gurpide, auriztarra eta sortetxeko jabea zen (bere aita bezala herriko errienta izaki, etxea *Maistronea* izenez zen ezagunago). Ama, Josefa Goizueta Madina, bertara ezkondu doneztebarra zen. Hamar seme-alaba ukan zituzten; Fermin haurrideren artean bigarrena zen. Anaia gehienarekin, Juan, herriko eskolak bukatu-eta Iruñerat joan zen Huarte seglar Ikastetxera. Besteak beste, Pio Baroja izan zuten eskolakide. Iruñeko ikasketak burututakoan, aldiz, Zaragozara abiatu zen unibertsitate mailakoak egitera, sendakintzarenak. Anaia ere han zen, abokatarenak egiten. Ikasi ez ezik —aski saiatua omen zen— pilotan ere frango ibilki omen zen anaiarekin batera, zenbait txapelketa xume irabaziz eta guzti. Azken urtea Madrilen ikasi zuen, bertako Sendakintza Ikastetxeko Klinikan barne-ikaslea lonbratua izatea erdietsi baitzuen. 1891ko irailaren 4an lortu zuen lizentziatura.

Sendakintza

Sendakin gisako lehenbiziko hasi-masiak herrian eman zituen, Auritzen bertan, 1892ko maiatzaren 26an bertako sendagile lonbratua izan baitzen. 6 bat urte han zen ibili —artean, *Porkaxonean* sortu Felisa Irigarai Apat herrikide eta lehengusin ttipiarekin ezkonduz—. Ondoren, Bidasoa aldera higitu zen, Berara, sendakin ordezko lan batzuk egin beharrez (Angel semea han sortu zen 1899ko martxoaren 1ean). Baina 2 urte berantago, Iruritako plaza irabaziz, Baztan aldera joan ziren bizitzera. Iruritako *Palotegia* etxean kokatu ziren, han sortuz gainerako semeak: Miguel, Luis Maria, Jeronimo eta Jesus, lehenbizikoa segidan hila, azkena 10 bat urteren inguruan.

Iruritan 15-16 urte eman zituen. Bertan anitz ikasi zuen, bai osasungintza arloan, bai euskalgintzarenean. Laborariekin, batean eta bestean, eta Lekarotzen zeuden hainbat kaputxinorekin bigarrenean. Baztanen bizitutakoa hatz sakona izanen zen bai harentzat, bai familia osoarentzat. Batetik, medikuntzaren bide berriak jorratu zituen, garairako aitzinatu gisa ibili baitzen kirurgiako eremuan: ebakuntzak eta guzti egiten zituen kontsultan eta are baserrietan. Horretan oinarritua zen 1915. urtean Iruñeko

Huarte Ikastetxea Iruñean (1878 inguruan). Maisua dagoeneko lerroan, ezkerretik hasita 2. eta 3.ak Juan eta Fermin anaiak, hurrenez hurren. Lerro berean eskuinetik hasita, 2.a Pio Baroja)

Irurita (Baztan) (Mena Argazkia)

Larreko Iruñeko ospitalean zenbait kiderekin (1915-20)

Porkaxonea, Felisa emaztearen sortetxea, Auritzen

Ospitalean plaza bat irabazteko *Memoria sobre Cirugía abdominal en la clínica rural* aurkeztu zuen lana. Berau irabazirik, urte hartan Iruñeko bidea hartu zuen eta hiriburuan kokatu zen familia. Hasieran Santo Domingo karrikan kokatuta zegoen ospitale zaharrean, gero Barañainen egin zen berrian; ia hil arte beti lanean ibili zen zirujano-sendakin gisa. Ospitaleko zuzendari izatera ere iritsi zen, baina ez zen hargatik batere harrotu, alderantziz, eginkizun hartatik aldentzeko eskatu zuen, baina behartu zuten, bereziki gerla denboran.

Gizon xumea zen, kristau sinestean tinko, arras fededun; ez, ordea, espantuka edota itxurakerian dabiltzanetarikoa. Ahalik gabeko jendea etengabe zuen artatzen —usaian Iruñeko behartsu eta ijitoen auzoetarat joaten zen dohainiko artatzeak egitera—. Gizon barnekoi eta aski zorrotza zen, beti egiari men egoten entseatzen direnetarikoa.

Sendakintza, beraz, haren arrankura nagusietarik bat izan zen: jendearen osasun egoera, artatzeko bideak, heriotza kezka, fedearen bezainbat zientziaren argiaren beharra... Gai horien inguruan ere idatzi zuen, dibulgazioko artikuluak euskaraz, anitz; erdaraz bizpahiru liburuxka. Erdarazkoen artean, Sociedad Aragonesa de Ciencias Naturales elkartean, bertako kide zen garaian, 1906an, idatzitako *Noticia biográfica del iluste botánico Sr. Lacoizqueta* lantxoaz gain, garai berean, 1905ean, Baztanen hainbat sendakin-lan eginiko denboretan, *Topografía médica del Valle de Baztan* lan luzeskoa plazaratu zuen (honen karira, harremanetan zen Telesforo Aranzadirekin eta honek aholku interesgarri zenbait ematen zion agoten antropologiazko ikerketen muntaz). Gaiari lotua eta bere kezken ildotik, zientzia eta fedea, *Guía médica del asistente a moribundos* (Iruñea, 1945) eta bereziki *Guía médica del intérprete de milagros y favores* (Madrid, 1949), G. Marañónen hitzaurrearekin, argitaratu zituen.

Pentsamendu eta politika

Familia karlista jitekoa-edo zen, kristau eta kontserbadorea. Euskaltzalea ere bai. Aita Ramon, besteak beste, Arturo Campiónek sortutako *Asociación Euskara* elkarteko bazkide zen eta 1878ko urriaren 30ean bertako kargodun, Auritzeko ordezkari, lonbratua izan zen —«...(La Junta Directiva) ha tenido presente al hacer el nombramiento las relevantes prendas que le adornan y el amor a los fines y aspiraciones de la Asociación que le caracteriza»—. Orobat zen *Revista Euskara* delakoaren harpidedun, *Porkaxone*ko Manuel lehengusua bezala, denborarekin Ferminen aitaginarreba bilakatuko zena. Ez zen gutxi, ez baitzen usaiakoa sortu berriak ziren elkarte eta aldizkari haietako partaide izatea.

Jatorri eta testuinguru haietako beste ez gutxi bezala, hasieran integrismoaren inguruan ibili zen. 1897ko *IV Congreso Científico Internacional de Católicos* delakoaren laguntzaile izan zen, 1901ean Madrileko *El Siglo Futuro* egunkari katolikoaren harpidedun eta 1907an Nafarroako *Junta Regional Integrista* erakundeko partaide. Euskaltzaletasuna, haatik, ez zen erabat lozorroan. *La Tradición Navarra* aldizkari integristan, lehenbizik erdaraz eta gero erdaraz eta euskaraz idatzi zuen. *Feriri* akronimoa erabili zuen izengoitiz. Al-

Larreko, emaztea, semeak eta zenbait ahaide Aitzubin, Auritz (1915 inguruan)

dizkari hartan erdaraz idazten hasi zen, Baztango kronikak-eta, baina euskarazko zatiak ere sartuz; munta eskasekoak —eguraldiaz, osasun egoeraz, etab—, baina Blanca Urmenetak dioen bezala (*Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1996), euskara partzialki erabilia bazen ere lehenengoak dira nafar prentsan. 1909an jada, gero eta euskara gehiago sartzen hasi zen, lehengo gaiei beste zenbait erantsiz (erlijiozko ekitaldiak, pilota partidak, baztandarren euskararen erabilpena, etab). 1910. urteaz geroztik ia euskaraz soilik idazten du. 1911-12an al-

Larrekoren aita, Ramon (beltzez) eta aitaginarreba, Manuel (Auritz, XIX. mendearen bukaeran)

Iruñeko etxea (1920 inguruan)

Felisa Irigarai Apat auriztarra, Larrekoren emaztea (1920 inguruan)

dizkari hartan idazteari utzi zion. 1913rako jada gauza nabaria zen integrista ildoetatik at zebilela, Felix Amorena abokatu eta deputatuak berak aitortzen zuen bezala: «¿Cómo desconocer que el propio don Fermín Irigarai, y cuyas bellísimas prendas son innegables, está hoy fuera del integrismo?» (*Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920). Testu antologia (I)*, Joxemiel Bidador. Iruñeko Udala, 2001).

Artean, kristau pentsamendua izaki ardatz eragile nagusia, bertan barnaturik —kezkaturik eta gaurkotasunean ibilki— laster kristau demokraziaren antzeko ildoari hurbiltzen hasi zen. *La Croix*, Maritain eta halakoak zituen irakurgai. Gerora ere jarrera hori nabarmenduko zaio —euskaltzaletasunarekin txertatua— bizitza osoan barna. Beti ere, aldenduxe Elizaren jarrera ofizialetik, «nacional-catolicismo»-tik eta antzekoetatik, baina hierarkiarekiko errespetoa inoiz galdu gabe, hain zen begiratua.

1936-39 eta 1939-45eko gerletan oraindik gehiago areagotu zitzaion jarrera. Hain zuzen, gerla giroan gero eta garbiago zuen ikusten, eta salatzen, Elizaren bitartekariak —apez, fraide, serora eta are apezpiku...— zeinen nabarmen zebiltzan zinezko eta «amodiozko bakearen bideetatik urrun», zeinen men zeuden gerla sustatzeari eta ohore-lausengoari. Orobat du eztabaidatzen eta are gaitzesten Elizak gerlaren zilegigoaz plazaratutako juzgu eta jarrera; garai hartan —II. mundu gerlaren testuinguruan— puri-purian zegoen eztabaida. Eta erran behar da, iritzi horiek errespetoz, baina aski lañoki zituela plazaratu eta defenditu idazten zituen artikuluetan. Are gerlan klandestinoki idatzi zuen egunkari modukoan.

Larrekoren pentsamenduaren beste ardatz nagusia, erranik da, euskaltzaletasuna izan zen. Etxetik lozorroan zeramana. Berak hanhemenka dioenez, Zaragozan hasi omen zitzaion pizten euskaldun izatearen kontzientzia, ikasleen artean seguraski. Berantago, bereziki Baztanen, jantzi, sendotu eta bizkortu egin zitzaion sentimendu hura. Politika kontzientzian sakondu ahala hizkuntzarena lantzeari eman zen, abertzale eta euskaradun izatea bereiziezinak baitzitzaizkion. Gainerat, euskararen gainbeherakadan errudun nagusienetarik jende letratua zelakoan zegoen: haren betiko *leit motiv* bat izan zen. Segidan, helburu horri men, artikuluak idazten hasi zen lehen ere baino jarraikiago, elkargo eta politikazko alderdietako jendeekin harremanetan sartzen... Sabino Arana, euskal kontzientzia berria sortu eta piztu izanagatik, zuen miresten; abertzaletu zen goitik behera, EAJren ideologiazko ildoetan naski, nahiz eta alderdiaren karnet eta disziplinetatik urrunsko ibili.

Euskararen aldeko ekitaldia dirudien herri-bisita batean (1920-30)



Larrekoren eskuizkribua (1915 ingurua)

Euskal letretan barna

txean zukeen letretako afizioaren lehen iturria, aita errienta izaki eta *Revista Euskara* aldizkaria eta ez dakizkigun beste batzuk etxeko giroan sustraituta baitzeuden aspaldian. Baina Ferminentzat, integrista garaian baino askoz ere gehiago, letretan barnatzeko indar eragile nagusia abertzale kontzientzia izan zen; abertzale —euskal nortasun— horren barnean hizkuntza muina zela baitzitzaion; ez zuen inondik ere ez ulertzen, ez onartzen, euskararik gabeko Euskalherria, ez eta euskararik gabeko abertzalea ere.

Erran izan da berant ikasi zuela euskaraz, besteak beste, berak, Beran zegoela, «Euskal itzik ez nakien; au oraiko lotsa!» dioelako, eta berantago «ni haurtzaroan mintzatzen omen nintzen euskaraz, baina ez naiz oroitzen; gero, beharrak aginduta hasi nintzen mintzatzen eta orain nire helburua da behar lukeen bezala hitzegitea eta idaztea...». Egia dirudi, beraz, nahiz ñabardura batzuk egin beharrak diren.

Herrikide guztiak bezalaxe haurtzaroko euskara mota eta mailaren jabe zateken Fermin, etxeetan-eta hori baino ez baitzen mintzatzen. Gazteen artean, berriz, seguraski erdara nagusitzen hasi zatekeen Auritzeko karrikan.

Auritzeko karrika, Larrekoren zenbait ahaide (1918 inguruan)

1909.eko artikuluetan jada kezkati eta kexu dager euskararen beherakadaz, haren aburuz «gazteriaren hizkuntzarekiko maitasun ezarengatik eta, Auritz bezalako herri batean, sendagileak, idazkariak eta maixuak erdaldunak izateagatik». Hori dioenean Iruritan zen, oraindik trebatu gabea euskarazko kazetagintzan. Zerrenda horretan «apezak» ez sartzeak oraindik ere euskaldunak zirela erran nahi du (1936ko gerla arte hala izan zen), katixima eta dotriña bedere euskaraz ikasten zituztela Auritzeko haurrek; bere haurtzaroan areago zituzketen, naski. Haren bi anaia, Juan eta Gabriel, euskaraz idazten ere nabarmendu ziren; baita lehengusu txiki eta gero koinatu izanen zen Agustin herrikidea ere. Denak haren garaikoak eta denak euskaraz idazten (nahiz Juan eta Larrekoren lehenbiziko artikuluetan euskara maila murriztua nabari den: alfabetatu gabea, batere irakurtu gabea euskaraz, ergatiboa-eta dantzan...). Hain zuzen, hori ez zela euskaraz (ongi) jakitea erizteraino, Larrekok arrazoiz zeritzon bezala.

Bera eta Baztanera joan aurretikako garaian, herriko sendakina zelarik, gordetzen da 1898ko urtarrilaren 18an herriko alkateak egindako «... posee el idioma vascongado» bermatzen duen ziurtagiria (balio erlatibokoa, agian, baina nekez egin zitekeena batere

Auritzeko azoka

ezagutzarik gabekoa izan balitz). Argigarriagoa dateke etxean gordetzen den 1899an berari zuzendutako euskarazko gutun pollit bat (idazteko punturainoko hizkuntza erabilpena frogatuz). Baina, seguraski, euskara hain zuen higatua, eta ahaztuxea, non gaur "hiztun pasiboa" deitzen dena baino ez baitzen izanen..., harik eta kontzientziaren bidez piztu zitzaion arte. Beran, lehen *Eskualduna* astekaria eskutartean eduki zuelarik, emakume saratar batek utzirik, euskaraz ez jakin izana du deitoratzen eta, mementu berean, han irakurri hizkuntza aberatsa miresten… Ez du bada erraten, abantxu 50en bat urte euskal letretan eta sendakintzan eman ondoren, «Euskaraz sendakintzan bezain motel, arront eta zakar nabil!».

Baztanen zela, Lekarotzeko komentuko zenbait kaputxinorekin garatu harremana baitezpadakoa izan zen (A. Celestino Caparrosokoa *Arrigarai* lagun eta maisu mina, A. Eusebio Etxalarkoa, A. Roman Berakoa eta beste zenbait). Hor trebatu zen idazketan eta orduan hasi zen *Feriri, Irigarai'tar Permin, Buruzuri eta Larrekoa* izenak erabiltzen, nahiz laster *Larreko* bilakatuko zen euskal letretan erabiliko zuen bakarra.

Erran bezala, 1908. urtean hasirik, *La Tradición Navarra* aldizkari integristan idazten hasi zen. Gero, abertzale kontzientzia sendotu ahala, beste aldizkarietara pasatu zen. 1915ean hasi zen Iruñeko *Napartarra* aldizkarian eta Baionako *Eskualduna* astekarian idazten. Geroztik ere bietan anitz idatzi zuen, beti ere luze eta leialkiago Baionakoan. Harremanak garatu zituen azken honen inguruan zebiltzan zenbaitekin, hala nola Hiriart-Urruty, Abbadie, Adema, Mgr. Saint-Pierre, Oxobi, Soubelet, Elizalde, eta beste. Hegoaldean sortzen ari ziren elkarte eta erakundeetan ere trabatua zen, zenbaitetan bera izaki eragile. Iruñeko *Euskararen Adiskideak* elkartearen fundatzailetarik bat izan zen (bertan hiriko euskaltzale gehienak bildu ziren: J. Agerre, B. Arbea, D. Beunza, J.M.ª Huarte, L. Olivier, J. Larrache, P. Roch, M.ª Paz Ziganda, A. Damaso Intzakoa, E. Zubiri eta beste). 1933. urtean bertako lehendakaria izan zen. *Euskaltzaindia* 1918an sortu zelarik, lehenbiziko izendapenetan agertzen direnetakoa da, 1919an. Nafarroatik hauek izan baitziren lonbraturiko euskaltzain urgazleak (fundatzaileez gain Jose Agerre ere osoa izan zen izendatua): Teodoro Arburua, A. Celestino Caparrosokoa *Arrigarai*, A. Eusebio Etxalarkoa, N. Ormaetxea *Orixe* —bere burua nafartzat baitzeukan— eta Larreko.

Larreko Euskalzaleen bilera batean Etxarri Aranatzen (1920etan)

Euskal Esnalea elkarteko partaide aktiboa, *Eusko Ikaskuntza*n, orobat beste kultur elkartetan... Harremanak ugaritu eta hedatu ziren. Berezi eta estuenetariko batzuk: Etxalarko Eusebio kaputxinoa, Kepa Enbeita *Urretxindorra*, A. Campion, Lizardi, Sebero Altube, Justo Mokoroa, Blas Alegria, J. Elizalde *Zerbitzari*, E. Zubiri *Manezaundi*...

Kolaborazioak, gutun harremanak, pertsonalak... Nahiz ofizial ziren jarreretatik —hala hizkuntzan nola politikan— aldenduxe ibili, are kritiko, Larreko erabat kokatu eta preziatua zen 1936.eko gerla aurreko bi hamarkadetako euskal munduan. Joxemiel Bidadorek ongi aztertu duen bezala, Nafarroan garatzen hasia zen idazle belaunaldi berri baten babesle gisa-edo jardun zuen, Manezaundirekin batera. Orduan loratzen hasiak ziren, Jose Agerre aitzindari, beronen anaia Anastasi, Alexander Tapia-Perurena olerkari fina, Pablo Artxanko, Miguel Espartza, Angel Irigarai, etab. Hizkuntzaren eredua aski eztabaidan zen, eta herri hizkeratik ez aldentzea ifarra izanki, nahiz eta lexikoan zenbait hitz berri onartu izan, nafar kutsuko hizkuntza jasoaren aldeko jarrera nagusituz zoan. Hain zuzen Larreko, lapurtar eredua ifarrean eta hizkuntza garbizaletik aldenduxe, beti saiatu zen lexikoaz bainoago joskera eta hizkuntzaren senaz mamitu hizkuntza mota aldarrikatzen eta gauzatzen; ahaztu gabe, gainera, harentzat idazteak helburu didaktikoa zeukala beste ezeren gainetik.



Larreko mendian (1930 inguruan)

Eta Baztanen hasi bideari, euskara lantzeari, sekula ez zion utziko. Lapurtar tradizioa, edo hurbilekoa, gogokoena zeukan. Beti irakurtzen eta berrirakurtzen zebilen Axular, Haraneder, Chourio, Duvoisin, Diharasarre, Mendiburu... Baita *Eskualduna*, *Gure Herria* eta hegoaldeko beste zenbait aldizkari ere (*Argia*, *Euzkadi*, *La Voz de Navarra*, *Euzko-Deya*, *Euskal Esnalea*...), bistan da.



Baionako *Eskualduna* astekarira igorritako eskutitz-azala (1925 inguruan)

Artikuluen bildumak

rosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak 1958an Angel semeak apailatua eta Principe de Viana erakundeak argitaratuan haren idatz-lan nagusi zenbait agertzen dira (literatur ikuspegitik aipagarriena, eta idatzi zuen bakarrenetakoa, «Euskaldun biozduna Mexikon» narrazioa da); E. Zubiri *Manezaundi*-ren beste zenbaitekin batera. J. M.ª Larrea eta P. Diez de Ultzurrunek 1987an *Nafarroako euskal idazleak* Pamielak argitaratu liburuan ere zenbait kazeta artikulu sartu zituzten. I. Caminok, bestalde, artatsu prestauriko bi aletan, «Klasikoak» saileko 61 eta 62.ak, ia artikulu guztiak eman zituen argitara 1992an. Azkenik, Joxemiel Bidador idazle irunsemeak ere asko aztertu du Larrekoren ibilbidea; aspaldi honetan gehien dabilena da Artxibo, Hemeroteka eta antzekoak arakatzen Larrekoren artikulu ezezagunen bila. Horren ondorioz *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936). Testu antologia (I)* (Iruñeko Udala, 2001) liburuan *La Tradición navarra* aipatu aldizkarian idatziriko 22 artikulu argitaratu ditu. Oraindik ere badu beste parrasta bat argitaratzeko bidean.

Gerla urte, gezur urte

1936ko gerlak eztanda egin zuelarik, Larreko lehen aipatu bizimodu eta jardueretan zen: sendakin lanean, ospitalean bereziki, eta euskalgintzazkoan, kolaborazioak, bilerak eta harreman sarean. Bet-betan, gerlak hori dena goitik behera eten zuen. Batetik bere testuinguru natural eta kulturaletik erabat isolaturik utzi zuen, ez harremanik, ez artikulurik, ez higitzerik. Bestetik, bere nortasunaren zutabeak —euskalduntasuna eta kristautasuna, zientzia eta arraziozko oinarrian— arrakalatuarazi zizkion: euskalduntasuna mehatxatu eta setiatua, eta Elizaren joera auzitan. Hain zuzen, euskalduntasuna eta Elizaren arteko auziak zuen hurbilen eta minberenik hunkitu. Hastapenean gerla Elizaren aurka egin gehiegikerien aitziko oldartze zuzentzaile soiltzat-edo zeukala dirudi. Baina jazarraldia aurrerago, mamia eta zergatikoa tinkatzenago eta nabarmenago; Larreko ere, bistan, da, gero eta ohartzenago. Berant gabe, fazisten gibel zainetan eta, gainerat, «etxeko» ezagun anitz tartean zirela, gordinki pairatu behar izan zuen aro iluna. Bera ere, nahiz adineko eta ospe handiskokoa izan (Ospitaleko zuzendaria artean), mehatxatua izan zen. Olaechea apezpikua bere alde atera zen; ongi ezagutzen zuen, bere sendakina izaki. Angel seme gehienak ere gauez jendea akaatzen zebilen talde fazioso baten zerren-

Gerla urte, gezur urte liburuaren azala, Pamiela 1993

1936ko abuztuaren 2an, gerla piztu berritan, Larrekori eman pasaporte berezia, Sarara semearen bila joan zedin

dan zegoela jakin zuenean, Sarara aldegin zuen, nahiz gero, Diputazioko lehendakariaren eskaeraz eta ez zitzaiola deus ere gertatuko bermatuz, Larrekok haren bila joan behar izan, horretarako eman pasaporte berezi batekin.

Iritzi-habeak puskatuak eta euskaldungoaren elikaduraz ments gelditu zelarik, ikusten-entzuten-gertatzen ari zenaz pentsatzen zuena idazten hasi zen. Arerioz inguraturik, giro ezinago hitsean, egunkari gisakoa idazteari lotu zen; 1936an hasi eta 1940ko erdi aldera arte. Eta euskaraz, gaizki ikusia bainoago oso lanjerusa zelarik, aipatzeak soilik arrisku handia zekarrenean (are euskarazko solasak debekatuak…; etxeko atarian berak ezarririko oroitharria, gerla piztu eta segidan kisuz estali behar izan zuen). Hala ere, aldiz iduri du garbi ohartzen zela idatzitakoaren lekukotasun balioaz, aldiz beldur zela haren berri jakitearen arriskuaz. Areago, inoiz harrapatua izatearen aukera garbi bailukean edo, argitaratutako lanaren bertsio laburtu eta auto-zentsuratua ere prestatua zeukan; funtsean bera, baina zenbait gauza eta aipamen ezabaturik.

Iruñeko etxeko atari gainean zegoen harria

Bestalde, Larrekoren prosa beti egon bada literaturaren helburuetatik urrunsko, are gehiago hizpide daukagun lanean: leloak, makulu-esaldiak, telegrafikoki idatzitako perpausak eta antzekoak etengabe errepikatzen dira. Lekukotasun kronika —eta terapia ariketa— izateaz gain, ongi isladaturik gelditzen da bizi zeneko giroa.

Eskuizkribua etxeko apaletan egon da urtetan eta urtetan, argitaratzea arriskutsua izan zitekeelakoan. Hondarrean, 1993an izan zen plazaratua —44 urte Larreko hil zenetik eta 50 urte baino gehiago idatzia izan zenetik—, Iruñeko Pamielaren eskutik.

Hala ere, bada oraindik argitaratu gabeko lanik.

Fermin Irigarai *Larreko* eta anaia Juan, Iruñeko etxean (1940etan)

Azken urteak

Gerla bukatutakoan erretira tenorea zuen (1939ko otsailaren 3an), 70 urte zituen-eta, baina Diputazioak segitzeko eskatu zion eta hala egin zuen, 1943ko irailaren 4a arte. Bitarte hartan, etsiak hartua, baina idazten segitu zuen; ez, ordea, hegoaldeko aldizkarietan, noski, ez zegoen-eta. *Herria*n, gutunak bidaltzen eta hala. Itxaropen bakarra iparraldeko haurridengan zuen ikusten eta hala zien behin eta berriz adierazten *Herria* astekariko arduradunei, bereziki Pierre Lafitteri, eta bidenabar irakurleei.

Osasun aldetik, aspaldi, 1929an birietatik erisko ibili ondoren, urteoro uda partean Panticosara joan ohi zen, goratasun hartako giroa onuragarria zelakoan. Azken urteetan gero eta pozikago joan ohi zen sortherrira. Hain zuzen, han zen, udan, osasun egoera gaizkitu zitzaionean. Hark han gelditu nahi omen zuen, heriotza hurbil sentituz nonbait, baina artatzearen karira eta hobe beharrez Iruñera ekarri zuten, eta Iruñeko etxean hil zen 1949ko irailaren 3an.

Iruñeko hilherrian dago ehortzirik, berak eginarazi hil-hobi eta inskripziopean: «Au da Irigaraitarren ilobia. Yainkoa baitan beude. 1934garren urtean. Oroit iltzeaz zuhur baduzu».

1972ko irailaren 10ean Euskaltzaindiak gorazarrea eskaini zion Auritz sortherrian; oroitharri bat paratu zen haren sortetxean.

Larrekori buruzko iritziak

Agenda orria Larrekoren iruzkin eta izkribuekin (1927)

Lizardik —Orixerekin eztabaidan zeneko testuinguruan— hau idatzi zuen: «*Larreko*ren iritziak maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez ederresten; abertzalez, goratzarre dagiot. Bikaintasun oiez nere eskuek ez ukitzeko diñan goitua ez balego ere, ille urdiñarenganako itzal samurra behar nuke aski. Aren aurrean bai, atera dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere. Itz oietxek zor nizkizun, aiton buru-xuri, begikoa; ta artaratu nauen abagunean atsegiña ez izanda ere, ongi etorria bedi, biotza lasatuaren ordañez» (*Itz lauz* liburuan, Euskaltzaleak, 1934).

Angel Irigaray Larrekoren semeak berak, hain zuzen *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* liburuaren aitzin-solasean, honela zioen: «La prosa de... (Larreko) no es exactamente del Baztan, donde vivió, ni de Burguete, su pueblo de origen: más bien es una estilización literaria del Alto navarro septentrional, mezcla de baztanés y labortano; pero esclavo de las formas populares y sin dar paso a formas artificiosas». Eta aurreraxeago: «El estilo de

ambos escritores (Larreko eta Manezaundi) es intermedio entre el purista y el excesivamente popular...».

Antonio Arruek, berriz, liburu bera hizpide duela, hau dio Larrekoren hizkuntza eta idaztankeraz: «Jasoa bakarrik ez: giarra ta, aldi berean, ugaria ta argia. Baña, batez ere, jatorra, erriak antziñatik erabiltzen dituen esaeretan ta joskeran errotua» (*Egan*, 1958).

Koldo Mitxelenak honela dio bere *Historia de la literatura vasca* liburuan (Minotauro, Madrid, 1960): «En revistas, semanarios y en la sección vasca de varios diarios se hicieron merecidamente conocidos el navarro Fermin Irigaray *Larreko* y el donostiarra Andrés de Arcelus *Luzear*... ».

Karmelo Etxenagusiak bere *Euskal Idazleen Lorategia* liburuan (Herri Gogoa, Donostia, 1969) hau dio Larrekori eskainitako atalean: «izan be, auxe zan Larrekok euskerearentzat nai eban jatortasuna: ez itzetan, esaeretan baiño, erri-erriak ain ugari ta gozo erabilten dituzan esaera aberatsetan...».

Eusebio Erkiagak: «beste alderdi bat, eta "Larreko"-rengan goragarriena ta axola nagusikoa, bere saileko gaiez, euskaraz idatzi izana: osasun gaiak, miriku arloko jakingarri zenbait, garbitasuna, edariak, gizonen eta emakumeen lanak, eta abar». Eta aurreraxago, «Ez zuen iñoiz bere burua ez izlaritzat ez idazletzat jo. Aldi hartako "euskal idazlea" zen, xoilik. Izenordez geienbat lanean ari ziren erri-koseme apal haien artekoa, albisteak igorri, iruzkiñak egin, asmoak agertu, erriaren alde eta izkeraren alde jardun» (*Egan*, 1970).

Idatz tankeraz, Ibon Sarasola ere beste hainbaten aburukoa da (Manezaundi ere aipagai duelarik): «Bi idazle nafar hauen obrak ez zuen purismoaren influentziarik ezagutu» (*Euskal literaturaren historia*. Lur, Donostia, 1971).

Euskaltzaindiak Larrekoren alde antolaturiko omenaldian, Auritz 1972, Pierre Lafitte, Aingeru Irigarai eta Jean Battite Etxarren

Pierre Lafittek, aldiz, hauxe dio (*Euskera*, 1973): «Larrekoren eskuarak badu behar bada han hemenka bortxa aire bat, idor eta gogor aire bat, bainan oro har, Jean Etchepare medikuarenak bezala "jaun" emaiten du».

Jose M.ª San Sebastián *Latxaga*k honela du aipatzen: «Gizon bezala oso ona ta ziñezkoa zala esaten dute, kristaua egizkoa gaiñera. Sendagille bezela egindako lanegatik Naparroak zorra aundiak ditu berari ordaindu bearrak. Gaxotegi berria gizon onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezela lan egin zuan eta esan dezakegu Naparro osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoak ez dute aztu; oraindik gutxiago beartsuak. Bere seme-alabak ba'lira bezela artzen zituan. Bere lanbidean oso argia omen zan. Gainera, nola ez?, euskaltzale sutsua genuen ta idazle benetakoa» (*Nafarroa euskal arrobia*, Donostia, 1973).



Larrekoren eskuizkribua (1920-30)

A. Santi Onaindiak ere eskaintzen dio atal bat bere *Euskal Literaturan (III)* (Bilbao, 1974): «la bizitza guztian osagintza lanez lertua ibili arren, andik edo emendik ateratzen zigun asti pixkat kulturazko gaiak aztertu ta buru-biotz jarioka idazlan politak bururatzeko». Eta aurreraxeago, «...maite-maite zuen bere erria, itzez eta egitez; gure jendeak eta lurraldeak zoratzen zuten. Bere idaztankera beti duzu jasoa... Altube'tar Seber'ek laket zituen Irigarai'ren esaera bitxiak: bi aldiz beintzat aitatzen du bere "Erderismos" liburuan».

Jose M.ª Larreak eta Pedro Diez de Ultzurrunek ere hizkuntza eredua dute aipagai: «Derragun ere, garai hartako euskaltzaletasuna Nafarroan, bertze lekutan ez bezala, ez zela berrikerizalea izandu; Nafar-izkiriatzaileak (Larreko, Manezaundi eta bertze...), "Euzkadi"n, "Napartarra"n eta non-nahi agerturikako izkribuetan erakutsi zu-

Crispin Martinez margolari nafarraren erretratua
(1930-35 inguruan)

tenaz, herri-mintzaira baitzuten eredu» (*Nafarroako euskal idazleak I*, Pamiela, Iruñea, 1985).

Mariam Antoñana Abalosek («P.F. Irigarai *Larreko*-ren obraren azterketa estilistikoa», *Fontes Linguae Vasconum* 58, 1991), bestalde, aburu interesgarriak eskaintzen ditu: «Larrekok, neurri haundi batean, helburu ideologiko baten menpean ezarri zuen hizkuntza literarioa, hots, ez zuen idazten literatura hutsa egiteko asmo soilarekin». Eta geroxeago «Idazle gehienek, Larreko barne, bigarren maila batean kokatu zuten hizkuntza literarioaren beraren lantzea, hizkuntza biziaren aldeko jarrera hartuz, hori baitzen inongo idatziriko hizkera baino lehenagokoa». «Prosa propagandistatik balio literarioko prosaraino zegoen bidea ez zuen Larrekok ibili, zoritzarrez, baina bere xedearen beraren baitan zetzan oztoporik haundiena». «Euskal kazetaritzaren sorkuntzan parte hartzetik datorkio idazle nafar honi merezimendurik haundiena. Aski ongi zekien, eta halaxe aitortzen du, euskal kazetaritza jaio berria zela, eta horregatik ematen du aholkua "Euskualduna" astekaria egiten zutenak eredutzat hartzeko.»

Larreko eta Felisa emaztea eta 4 bilobak, Iruñeko etxean (1947-48 inguruan)

Iñaki Caminok (ibid), bere aldetik, honela dio: «mende hasierako euskal kazetaritzan daukan garrantzia ezin ukatu da: idatzitakoak kopuru handia egiten duelako eta bere lantxoak aldizkari askotara zabaldu zituelako batetik. Bestetik, zerabilen idazteko tankeran, askoren gogoko den bizitasuna nabarmena delako. Horretaz gain, haren idazkietan garai hartako lekukotasun baliagarri ugari dago».



Iruñeko etxean (1936-39) (*Gerla urte, gezur urte* idazten ari zeneko garaikoa)

Xamar garraldar idazleak (*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-XII-26), *Gerla urte, gezur urte* liburua hizpide duela, honela zioen «Kronika gaitza» izenburua zeraman artikuluan: «Gu zorionean gaude, galdutako pitxi bat berreskuratu dugulakotz; landu gabekoa baina, oi! bai ederra! Ez da goi literatura izanen, ez baitzen hori izan Larrekoren helburua; hala ere, segur naiz, oraidanik bertze maila batean ikusiko dugula Auritzeko idazlea».

Joxemari Iturralde idazleak ere, «Arrotz bere etxean eta sator bere lanean» izenburupeko artikuluan, ildo beretik dio: «Azkenaldi honetan euskaraz argitaratu diren liburu interesgarri eta onen artean (eta ugari dira zorionez) gaur ezinbestekoa zaigu Fermin Irigaray "Larreko"-k idatzitako *Gerla urte, gezur urte* (Pamiela) aipatzea. Liburu aparta, hunkigarria eta ezohikoa dena, benetan». Eta geroxeago: «Aita Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca*n esaten digu gizon zintzo eta bihotz onekoa zela Irigaray. Gehiago ere izan zen. Kronika hunkigarri hau irakurtzean handitu egiten baita idazle honen balioa, euskal literaturaren historian lehen maila bateraino iristen delarik» (*Argia*, 1994-III-13).

Blanca Urmenetak (ibid), berriz, honela dio hasierako euskarazko zatiei buruz: «...tienen la característica de ser las primeras crónicas aparecidas en la prensa navarra en las que se utiliza parcialmente dicha lengua». Eta maila

orokorrean: «Sus escritos en vascuence podrían considerarse los primeros en temas de interés cotidiano, ajeno a proclamas, apologías, etc. incluso a política».

Joxemiel Bidadorrek, azkenik, maiz aztertu eta argitaratu ditu Larrekoren idatzlanak. Honela du ikusten gure biografiatua (*Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936). Testu antologia (II)*. Iruñeko Udala, 2003): «Hasieretan bi izan ziren berebiziko ospea bereganatu zuten egileak, Larreko eta Manezaundi. Horretarako hainbat arrazoi bazeuden. Alde batetik Larrekori bere aitagoitasuna aitortu behar zitzaion aurretik eginiko lanarengatik, ez bakarrik *Napartarra*-n, ezpada prentsa integristan eta». Eta aurreraxeago: «Askotan errepikatzen da Larrekok euskara herrikoiaren aldeko jarrera sustatu eta horixe zela erabili zuena, eta auriztarrak berak zioen antzekorik, baina ongi aztertuz gero, zein euskaldun alfabetatu gabeak ulertuko zuen arazorik gabe Larrekok idatzia? Larrekok ez zuen euskara herrikoia erabili, inongo euskara zehazki erabili ez zuelako, eta horretan zail zen Larrekorena, esaterako, garbizale edo mordoila adjetiboekin bereiztea. Bada Larrekok egina zuena kultoa baitzen».

1939ko nortasun agiria

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2186-0 (Lan osoarena)
84-457-2187-9

L.G.: BI-2960-04